

# Hau sufrikarioa!



Istorio laburra, Elvira Bonafaciok  
Beste Hitzak proiektuaren barruan idatzia.  
Ipar Irlandan, 2018an.

**bestehitzak**  
||||



**otherwords**  
||||

Itzulpena: Ibai Sarasua Garcia

*“Txoriek hegan egiten  
dute eta  
beste leku batzuk  
esploratzen dituzte  
beren izaerari fidel  
dirauten bitartean”*

Bizkar zorroa estu eutsita eta burua erdi makurtuta, Teili hizkuntza geletarantz doa, hankak herrestan.

–Bizkor, motel hori! –esan du norbaitek Teiliren atzean.

Bizkar zorroa eusten ari ziren esku zalantzatiak ukabil bihurtu dira. Teilik begiak ireki ditu amorru betez, eta iruzkina egin duen neskari begiratu dio. Neskaren atzetik, tarte bat utzita, Teilik begirada haserretuari heldu dio papiamentu gelara sartu den arte.

Haserre bizian, baina aldi berean segurtasunik gabe, Teili ikasgela berberera sartu da oinez. Dagoeneko ikusten du non eseri diren harroputzak, eta leku estrategiko bat aukeratu du, haiek ikusteko gertuegi egon gabe.

–Haiman... Hanmanty...

–Ji, ji, ji, ji, ji, ji –hasi dira barrez ikasle nederlandera hiztunak.

–Martina andereñoa –esan du irakasleak, kaltea konpondu nahian.

Kokoteraino, Teilik erantzun du:

–Andereño, badira hiru hilabete eskola hasi zenetik eta oraindik ezin duzu nire izena ondo esan ere!

–Ea, maitea, badakizu ez naizela izenekin moldatzen. Gainera, egunaren azken ordua da, izan erruki apur bat –esan du irakasleak Teili baretzeko.

Irakasleak zerrendarekin jarraitzen duen bitartean, Teilik bere boligrafoa hartu du, eta bere liburuaren azalean Haimentely Conzewits Josefina Martina idazten hasi da.

–Hori al da zure izen osoa? –galdetu du alboan eserita duen lagun batek, jakin minez.

Teilik irribarre eta buruarekin baietz egin du.

–Adarra jotzen ari zara! Nor zen irudimen handia zuena, aita edo ama?

Teiliren lagunak galdezka jarraitzen du, eta kontatzen hasi zaio nolatan dituen berak ere bi izen eta bi abizen.

Teili entzun bitartean azalean idatzitako izena apaintzen hasi da, eta gero esan du:

–Nire kasua antzekoa da. Amonak esan zidan eztabaida gogorrak izan zirela nire izena adostu aurretik. Aitak bere amaren izena jarri nahi zidan, amona zenarena. Amonak, amaren amak, tradizio erlijiosoa mantendu nahi zuen, eta nire jaiotze datari lotutako santuaren izena jarri nahi zidan, Bristoleko liburuxkaren arabera<sup>1</sup>. Amak, ordea, guztietatik egoskorrenak, hainbat izen erabili behar zirela zioen behin eta berriz: berea, Sharentely, eta aitarena ere bai, Haime. Azkenean, pozik zeuden denak, hiru izenak nituelako.

– Kar, kar, kar, gustuko dut zure ama...

Teiliren lagunak ezin izan du esaldia amaitu, irakasleak guztiei eskatu baitie erreparatzeko arbelean idatzitakoari, eskolarekin jarraitu ahal izateko.

–Ados. Hitz hauei begiratzen badiegu, **dibertsitateari** eta **nortasunari**, honako hau da horiek argitzen laguntzen duen lehen galdera: **Nor zara?** Rihanna, esan diezagukezu zer kezkatzen duen gure nortasuna?

Rihannak erantzun du, kartsuki eta nederlandar azentuaz:

–Zein eskoletara noan, norekin nabilen eta zer janzten dudan...

–Oso ondo, Rihanna –esan du irakasleak, adore eman ez.

–Andereño, ez dut bukatu. Gurasoek emandako izena ere horren parte da –esan du Rihannak, irakasleari moztuz eta Teiliri begira.

Rihannaren talde txikian eserita dauden gelakideak, eta gelako beste zenbait, barrez hasi dira, baina irakasleak entzungor egin die eta jarraitu egin du:

---

<sup>1</sup> Almanake batez ari da, *Almanaque pintoresco de Bristol* izenekoaz; Latinoamerikako herrialde askotan

–Oso ondo! Gure erroei eta kulturari fidel eusten badiegu, munduak dagoeneko guri buruzko zerbait igarri dezake gure izenekin: nondik gatozen eta zertan sinesten dugun. Zoritxarrez, ordea, guraso batzuk kirolzale porrokatuak dira, eta zenbait artistaren zaleak ere bai, eta beren seme-alabei kirol mitoen edo jende ospetsuaren izenak jartzen dizkiete. Jende horrek ez daki, ordea, haien seme-alabak existitzen direnik ere.

Keinu egin dio irakasleak Teiliri, eta eskolarekin jarraitu du.

–Arraioa! –egin dute oihu gelako neska-mutilek.

Teilik irribarre egin du, pozik, eta apunteak hartzen jarraitu du.

Txirrinak jo aurretik, irakasleak errepikatu du:

–Etxeko lanak: eseri lorategian edo hondartzako ur ertzean eta behatu natura. Idatzi atentzioa ematen dizuen guztia, eta karakteriza ezazue. Gero, idatzi 4 haiku berdintasunaren eta ezberdintasunaren inguruan, atentzioa eman dizuten gauza horiekin lotuta. Erabili irudimena eta ekarri irudiak!

Haurrak azkar batean irten dira eskolatik etxera joateko, eta hala egin du Teilik ere, baina orduan, gelako atetik irten berri...

### **Eskolako zuzendariaren bulegoan**

–Haimentely Martina, zugandik ez nuen hau espero. Begira! Ikusi zer egin duzun! Begia ubelduta, aurpegia harramazkaz betea, uniforme urratuta, onartezina da!

Teili harro dago eserita, Rihannari begira. Rihanna eserita dago, burumakur, eta fardo hotz bat dauka lepoan, sudurretik darion odola gelditzeko. *Errua berea da, errespeturik ez badu, nik erakutsiko diot errespetua*, pentsatu du bere artean Teilik irribarrez.

Zuzendariak Rihannari galdetu dio zer gertatu den. Teilik gogoan du nola hasi zen guztia... *Eskolako bigarren asteko astelehena zen, Ingeleseko eskolan. Azaldu behar nuen zer sentitzen zuen zapal dutako pertsona batek.*

*Ingelesez horren ondo moldatzen ez naizenez, papiamentuz egitea erabaki nuen, beste eskola batzuetan egin dudan moduan. Rihanna erosoago dago nederlanderaz, eta kexu agertu zen, nederlanderaz egin beharko nuela esanez, gure herrialdeko hizkuntza ofiziala dela eta gure eskolako hizkuntza dela. Gorputza atezuan sentitzen hasi eta sutan jarri nintzen. "Nor uste du dela Rihannak, NIRE herrialdera etorri eta gauzak neure hizkuntzan azaltzea galarazten!" Bere lekuan jarri nuen, zenbait gauza garbi utziz bai papiamentuz bai nederlanderaz.*

–Zer duzu esateko, Haimentely? –eten ditu zuzendariak Teiliren pentsamenduak.

–Erraza da, zuzendari. Eskolako irakasle guztiek dakite zer ari den gertatzen, baina horietako batek ere ez du ezer egin. Rihannak iseka egiten digu papiamentuz aritzen garenoi, eta gure tradizioez irri egiten du. Uste du papiamentuz aritzen diren guztiak ergelak gara eta oihanean hazi gara... Horregatik gaur erakutsi diot jende hezigabeak nola erakusten dion jende zibilizatuari besteak errespetatzen.

Zuzendaria zur eta lur dago, gogaituta:

–Egia al da hori, Rihanna? Hori esan al duzu?

Teiliren aurpegierak Rihanna behartu du burua makurtzera eta esandakoa otzan onartzera.

–Hori *bullyinga* eta arrazismoa da, eta ez dugu horrelakorik onartzen eskola honetan! Zure gurasoak has daitezke zuretzat beste eskola baten bila. Gure eskolan ez dago lekurik horrelako jarrera duten haurrentzat.

Eskolako zuzendaria nazkatu da egoeraz dagoeneko. Bere eskola ez da inoiz izan horrelakorik jazotzen zen lekua, baina aurtengo ikasturtean ika-mika ugari entzunak zituen Rihannaren, Teiliren eta beste ikasle batzuen artean. Liskar hori zen gainezka egiteko falta zena.

Rihanna gorri-gorri jarri da, eta malkoak uharka doaz haren aurpegian behera, ur jauzi batean bezala. Belauniko jarri da zuzendariaren aurrean, erreguka:

–Ez, ez kanporatu... Ondo portatuko naiz... Saiatuko naiz... Barkadazu! Teili... Barkatu.

Rihannak ez daki zer egin. Eskolatik kanpo gelditzeko ideiak horren gogor jo du, ikeratzen hasi baita. Burutik igaro zaion lehen gauza da ama zein atsekabetuta egongo den, eskola horretan sartzeko egindakoak egin ondoren. Ezin du irudikatu beste eskola batera joan behar izatea ikasturtearen erdian, eta lagun berriak egin behar izatea. Zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta negar gehiago egiten du. Gora begiratu du, Teiliren begietara zuzen-zuzen. Begiak eta sudurra gorri dituela, ahotsa eta gorputza dar-dar batean, Rihannak Teiliren zangoei heldu die, eta erregu egin dio:

–Teili, barkadazu. Ez dut berriz egingo.

Teiliren konfiantza hazi egin da aurrean duen irudiarekin. Begiek dir-dir egiten diote, eta aurpegian duen irribarreak salatzen du sentitzen duen poza. Hitzik esan gabe, Rihannari begiratu dio, hausnarrean: *Azkenean, justizia. Espero dut papiamentuz hitz egitera behartuko zaituzten eskola batean onartzea, eta hala egiten ez baduzu, torturatzea, nik sentitu dudana senti dezazun.*

Dena den, Teili ez da konturatu ezin dela sarea altxa arrain guztiak sartu arte.

## **Geroago, amonaren etxean**

–Teili, hator eta konta iezadan zer gertatu den gaur eskolan.

–Amona, gogoan al duzu aipatu nizun neska nederlandarra, eskolan bizitzen uzten ez zidana?

–Zein? Ikasturte hasieran esan huena Curaçaon bizi bada gutxienez papiamentuz ikasi beharko lukeela?

–Horixe bera! Beno, etengabe gogaitu naute hark eta bere lagunak. Beti ari dira papiamentuz hitz egiten dugunon inguruko iruzkin mingarriak egiten. Beti ari dira gure ohiturez eta usadioez trufa egiten.

–Bai? –esan du amonak, aulkia kulunkatzeari utzita, betaurrekoak begietara inguratzen dituela, hobeto entzuten lagunduko balio bezala.

–Amona, lehen iruzkin horietatik, badirudi gerra deklaratu dutela nire aurka, behin eta berriz gutxiesten naute gelan nire txanda denean, edo albotik pasatzen natzaieanean. Irakasle batzuei esan diet, baina uste dute kontua puzten ari naizela. Tutoreak bakarrik esan die zerbait.

–Tutorea papiamentu irakaslea al dun?

–Bai. Amona, nazkatuta nengoen etengabeko torturaz. Gaur erabaki dut ez nuela jarraituko beste guztiak baino hobeak direla pentsatzen duten haur mukizu horien gehiegikeriak jasaten. Papiamentu eskolan nire izenaz barreka hasi dira. Gelatik ateratzen ari ginela, esan dit nire izena dela oihanean bizi den norbaitena. Amona, neure onetik atera nau guztiz.

–Baina, Teili... amonak ez al din irakatsi haserre bahago hamar arte zenbatu behar dunala zerbait esan edo egin aurretik?



–Amona, sakon hartu dut arnas, eta hamarrera arte zenbatu dut, baina gaineratu du jakin nahiko lukeela nire amak zein animalia izan den, garbi dagoelako animalia batek bakarrik eman diezaiokeela bere umeari horrelako izen itsusi bat.

Amonak zabal-zabal ireki du ahoa, eta eskuak aho parean jarri ditu, errezoan ari balitz bezala.

–Amona, neure izena aditu dut, hamarrera arte zenbatu dut, entzun dut ama animalia batekin alderatzen zutela, eta neure buruari esan diot nahikoa zela. Hamar bider jo dut ukabilekin, neure indar guztiaz. Nor dela uste du nire ama horrela iraintzeko?

Teilik amonari liskarra nola gertatu den esan bitartean, amona hausnartzen hasi da aurreko astean bere alabarekin, Teiliren amarekin, izandako eztabaida batez. *Neure alabak ez din ulertzen zein eragin duten haren alabarengan bere gutxiagotasun sentimenduek, Europako pentsamoldearekin nahasten dituenek. Europarrak imitatzea aukeratu din, eta, aldi berean, Curaçaoako erroak zabartzen eta arbuiatzen ditin. Uko egin zionan Teili auzoko eskolara eramateari, argudiatuz eskolako hizkuntza nagusia papiamentua badun, alabak arrakastarako aukera gutxiago izango duela etorkizunean. Esan zinan Teiliren eskola ona dela, eta bertako ikasle ugari arrakasta izaten dutela Herbehereetan. Orain, ordea, alabari arrakastarako aukera emango diola uste duen eskola horrek zorigaiztoko bihurtu din haren alaba.*

–Amona, ondo sentitu naiz Rihannak merezi duena jaso duenean, eta are hobeto sentitu naiz barkamena eskatzen ari zitzaidanean, baina orain triste nago.

–Nolatan, Teili?

–Amona, badakizu amak errieta egin didala hona gentozela. Behin eta berriz esan dit “Ba al dakin zenbat gauza egin behar izan dudan hi eskola horretan sartzeko, hik orain ni horrela lotsarazteko?”. Amona, ulertu beharrea, amak oraindik uste du irakasleari esan behar niola neronek konpondu beharrea, baina ezin nuen gehiago!

Indargabe, Teili negarrez hasi da, eta ahots altu eta dardaratiz esan du:

–Zergatik egozten zaizkigu guri, papiamentuz aritzen garenoi, ezaugarri txarrak bakarrik, eta zergatik izan behar dugu europarren antza onak izateko? Zergatik egon behar dugu isilik, zergatik onartu behar dugu guztia, zergatik izan behar dugu otzanak eta zergatik onartu behar dugu besteek gurekin nahi dutena egin dezaten? Amona, oraindik ere badago jendea, irakasleak ere bai, uste duena papiamentuak ez gaituela inora eramango.

Amonak laztan egin dio Teiliri buruan, kontsolatzen saiatzeko, eta esan du:

–Egon lasai, laztana, mundu honetan dena ez dun beltza eta zuria.

Teili, ordea, gogotsuago ari da negarrez. Amonaren zangoei tinko eutsi die, aurpegia haren magalean jarri du eta esan du:

–Uste dut okerreko familian jaio nintzela, okerreko herrialdean. Madarikatua amak nik aukeratutako eskolara ez bidaltzea erabaki eta honetan sartu ninduen eguna!

Teili nahigabetuta dago zeharo. Etsita dago. Amonak Teiliren nahigabea sentitu du, eta istorio batez alaitzen saiatu da.

–Teili, maitea, badakin hiri jazotakoak antza duela gure historia kolonialarekin? Antza diten heure borrokak eta geure hizkuntzaren, papiamentuaren, aldekoak.

Teilik zotin egiteari utzi eta gora begiratu du, harrituta.

–Badakin, hain justu, eskolan papiamentua irakastea kontu berri samarra dela? Ni eskolara nindoanean, debekatuta zegonan papiamentuz hitz egitea jolastokian ere.

Harrapatuz gero zigortu egiten gintiztenan; eta, are okerrago, bazegonan jendea borrokan papiamentua kontu ofizialetatik kanpo uzteko. Jende askok borrokatu din urte luzez hizkuntzak aitortza ofiziala izan dezan. Nolanahi ere, urte luzez, edo, hobeto esanda, mende luzez, jendeari burua jan ziotenan sinesteko haiena zenak ez zituela inora eramango, eta ez zirela gai nahi zutena egiteko, edo ez zirela besteak bezain onak... eta, oraindik ere, bazagon horrelakorik uste duenik.

Teili tente eseri da, eta arnasa hartu du sakon. Amonak aurpegia lehortu dio, eta jarraitu egin du:

–Robotak ziruditen, horrela pentsatzeko programatutakoak, haien pentsamoldea aldatu dezakeen edozer kanporatzeko antibirus bat instalatuta dutenak.

–Amona, horrek esan nahi du amak robot horien antzera pentsatzen duela eta nederlandarrek programatu dutela?

Amonak barre txikia egin du, eta jarraitu egin du:

–Maitea, jendeak bere buruaz eta bere kulturaz horrela pentsatzea ez dun nederlandarren lana soilik, beste kolonizatzaile guztiena ere badun. Bere garaian, kolonia garaian, jendeak ez zinan dibertsitatean sinesten. Ez zitenan maite lore bakoitzak bere kolorea izatea, nahiz eta elkarrekin sorta ederra osatu. Bere garaian, aukera hunan “egin nik esandakoa edo obeditzera behartuko haut”.

–Zer esan nahi duzu? –galdetu du Teilik, txundituta.

–Entzun, laztana. Historia irakurtzen badun, konturatuko haiz kolonizatutako lurralde guztiak berdin gobernatzen zituztela: kolonizatzaileek lur zati bat konkistatu zitenan eta besteei esan zietenan haiena zela, aurka egin zutenak hiltzen zitiztenan eta gelditzen zirenak obeditzera behartzen zitiztenan. Hori egitea lortu zitenan zapalduetakoei lan gogorak emanaz eta kolonizatzaileen mendean utziz jana izateko; eta, gero, ekonomikoki haien mendean utziz.

Horrez gain, zapaldutakoei hezkuntza ematen zietenan, haiek bihurtzeko kolonizatzaileen onurarako pertsona mota; hau da, pertsona otzanak, beren buruetan sinesten ez zutenak, irauteko kolonizatzaileen beharra zutenak. Hori egin diten kolonizatzaile guztiek, edo horretan saiatu ditun. Batzuek arrakasta handiagoa izan diten beste batzuek baino, baina mundu osoan antzekoa egin diten, gutxi gorabehera: kolonizatuek sarri beren nortasuna sakrifikatu behar izan diten, haien izaera, bizirik irauteko.

–Horrek esan nahi du ez amak ez nik ez dakigula nortzuk garen?

–Ez, ez, ez, Teili, maitea. Ez dun horren larria. Robotak erraz manipulatzeko ditun, eta programatutako guztia egingo diten, baina gizakiok ez. Dena den, kuttuna, zergatik ez haiz dutzatzen gorputza freskatzeko eta burua lasaitzeko, amonak jateko zerbait prestatzen dinan bitartean? Gero, jan bitartean, hitz egin zezakenagu nortasunaz, gu garenaz eta geure historiaz.

### **Aste horretako irakasleen bileran**

–Ez nago ados. Hezkuntza legeak bete beharko ditugu, baina kontuan hartu behar ditugu Giza Eskubideak ere; eta, neure ustez, garrantzi handiagoa eman beharko diegu azken horiei. Nola da posible guraso gutxi batzuek beren nahia horrela inposatu ahal izatea? Gurasoen batzordeko kide direlako eskolak haiek esandako edozer onartu behar al du? Euren seme-alabek besteek baino aukera gehiago izan beharko luketela pentsatzeaz gain, uste dute abantailaz tratatu beharko genituzkeela: haien seme-alabak talde batetik bestera aldatzea nahi dute, haien tutorea aldatzea, papiamentu eskoletatik salbuestea... Esnatu!

–Zer ari gara egiten? –esan du papiamentu irakasleak, Teiliren eta Rihannaren tutoreak, sututa.

–Ulertzen dut zergatik zaudeten asaldatuta, baina ez dugu irtenbiderik. Publizitate txarrak ez dio onik egingo gure eskolari, eta guraso horiek beharrezko guztia ematen diote eskolari –erantzun du zuzendariordeak.

Emozioak agerikoak ziren bileran. Papiamentu irakaslea traizionatuta sentitzen da. Bere alde egongo zirela uste zuen irakasleak isilik daude, eta gainerakoak Rihannaren alde azaldu dira.

–Beraz, justiziari entzungor egingo diogu prestigioaren eta diruaren mesedetan? Ondo ulertu al dut? –saiatu da beste behin papiamentu irakaslea.

Zuzendariak zuzenean erantzun dio irakaslearen iradokizunari, eta gai zerrendako gainerako puntuekin jarraitzeko eskatu du. Bilera nederlanderaz jarraitu dute, ohi bezala.

*Lotsagarria da –pentsatu du bere artean Teiliren gelako tutoreak– bost pertsonak ez dute papiamentua ulertzen, eta orain hogeitik gorak konformatu behar dugu nederlanderaz, gure eskolako hizkuntza nederlandera delako soilik. Ps!*

Irakaslea bileratik irten zen, lur jota. Ez soilik gehienek Rihanna eskolara itzultzeko bozkatu zutelako, baita lankideek babestu ez zutelako ere. Harro papiamentuaren alde daudela diotenek ere hozka egin diote mingainari oraingoan.

*–Hau ez da hemen amaitu, ordea –pentsatu zuen Teiliren tutoreak– borroka pertsonal bihurtuko dut.*

### **Bi aste beranduago, papiamentu eskolan.**

–Rihanna, zure txanda. Esan Curaçaoko jendeaz gustuko dituzun hiru gauza.

Rihanna deseroso zegoen, baina bazekien ez zuela galderari erantzun beste aukerarik. Nolanahi ere, Rihannak ez zuen hitzik egin denbora luzez.

–Zuotako norbaitek lagundu al diezaioke? –galdetu zuen irakasleak.

Beste behin, isiltasun osoa.

–Teili, esan al diezazkigukezu nederlandarrez gustuko dituzun hiru gauza?

–Noski, andereño. Onak dira negozioetan, zuzenak dira eta zorrotzak dira... Hau da, badakite une okerragoetarako dirua gordetzen.

Gela guztia hasi zen barrez.

–Oso ondo, Teili. Ezaugarri onak dira horiek, besteengan ikusi beharko genituzkeenak.

Rihanna, pentsatu al duzu zerbait?

–Bai, andereño –erantzun zuen Rihannak, lotsati– Curaçao-ko jendea sukaldari ona da... Eta badaki ondo pasatzen.

–Arretaz entzunez gero, horixe da dibertsitate esaten dioguna –keinu egin dio irakasleak Teiliri–. Ikasi beharko genuke aintzat hartzen guk izan ez arren besteek dutena. Badakizue, urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau. Ez dugu pentsatu behar hamalau direnik, edo besteak bezain onak izateko besteak bezalakoak izan behar dugunik. Dibertsitatean ez dago onik edo txarrik; ezberdintasunak soilik. Izan dezagun hori gogoan hurrengo proiektuari eta aurkezpenari lotutako etxeko lanak egiterakoan. Aurkezpena bi hilabete barru izango da, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunean.

### **Bi hilabete geroago: Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna**

Egun handia iritsi zen. Auditorioa apurka-apurka betetzen hasi zen, lepo egon arte. Gurasoentzat eta bisitariarentzat gordetako gunea beteta zegoen, eta agertokiaren bi aldeetako jarlekuak, eskolako haurrentzako gordetakoak, ia beteta zeuden. Nork pentsa zezakeen proiektu hori, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna ospatzekoa, horren jendetsua izango zenik?

Egitaraua askotarikoa zen, eta gela bakoitzak bere kultur ukitua ekarri zuen ikuskizunerako. Aurkezpen batzuk mandarinez egin zituzten, dumplingak egiteko erakustaldi batekin batera. Gero arte martzialen ikuskizun bat eman zuten, musika txinatarrak lagunduta. Hurrengo aurkezpena hiru gelek batera egin zuten, eta espainiarrek Latinoamerikan izan zuten eragina erakutsi zuten. Ikuskizuna komikoa izan zen oso, bereziki espainierazko hainbat aldaera entzun ahal izan zirelako, eta ikusi ahal izan zelako zein erritmikoak eta gogoz beteak izan daitezkeen talde etniko horiek. Zuzendaria harro zegoen bere eskola kultur aniztasunaz, elkarbizitzaz eta besteen ezberdintasunen onarpenez betetzen ikusteaz.

Tenorea aldatu egin zen, ordea, papiamentu irakaslearen ikasleak agertokira azaldu zirenean. Beste taldeenek ez bezala, bazirudien aurkezpen horrek banaketa sustatzen zuela. Teiliren taldea hasi zen. Nederlandarrek esklabutza garaian izandako krudeltasunaren inguruko poema bat aurkeztu zuten. Poema gustu txarrekoa zen eta ez zetorren bat ekitaldiarekin. Bazirudien Rihannaren taldeari iseka egin nahi ziotela.

Rihannaren taldeak ez zuen onartuko besteek hobeto egin zezaten. Rap kanta batean, Teiliren taldeari esan zioten zeinen arrakastatsuak diren nederlandarrak, eta zer ez duten gustuko Curaçaoako jendearengandik. Tentsioa ikusleengan areagotzen nabari zitekeen, eta zuzendaria saiatu zen papiamentu irakaslearengana jotzen, azalpen eske, baina harengana iritsi aurretik, kazetariekin egin zuen topo, albiste baterako ekitaldiaren zati bat grabatzera etorri zirenekin. *Tambú*<sup>2</sup> eta *chapi*<sup>3</sup> soinua entzuten hasi zen. Teiliren taldea berriz igo zen agertokira. Kantuan eta dantzan hasi ziren Rihannaren taldearen aurrean. Jendea xuxurlaka hasi zen, zer gertatzen ari ote zen galdezka.

---

<sup>2</sup> *Tambu* edo *tambú* hitzak erreferentzia egin diezaieke bai Aruba, Bonaire eta Curaçaoako musika genero jakin bati bai danbor txiki bati; danbor hori eta aitzur bat dira *tambú* musikako tresna nagusiak.

<sup>3</sup> Aitzurrak ez du kirtenik izaten, eta *tambú* musikako musika tresna nagusietako bat da.

Eskolako zuzendariak, ordurako gelako tutorearengana iritsi zenak, irakasleari esku hartzeko eskatu zion, egoera gainezka egiten ari zelako, bereziki kontuan hartuta hedabideak erretan zeudela.

Papiamentu irakaslea, ordea, egoskor sentitzen zen, eta aukera horren zain egon zenez, erantzun zuen: –Ez naiz ni eskola honetan haur bakar bati ere bigarren aukerarik eman ez ziona.

Belarrietatik kea zeriola, zuzendaria agertokira igotzen saiatu zen, papiamentu irakaslearekin batera... Baina berandu zen ordurako. Bi taldeak aurrez aurre zeuden, eta aurreikusitako moduan, borrokan hasi ziren. Haur bat besteari bultzaka hasi zen. Beste bat iletik tiraka... Ene! Infernua zen. Ikusleak izutzen hasi ziren. Zuzendariak eta irakasle batzuk agertokira borroka gelditzera igotzea lortu zutenean, ordea, *tambú* eta *chapi* soinuak entzun ziren berriz, erritmo ezberdinaz, eta guztiak geldiarazi zituzten. Borroka bat zirudiena antzezlan bihurtu zen. Papiamentu irakasleak, antzezlanaren parte hura ere, ikusleei galdetu zien:

–Egiaz al gaude dibertsitaterako prest, edo iraganean kateatuta gaude? Oraindik ere pentsatzen dugu hamalau direla urrutiko intxaurrak?

Papiamentu irakasleak galdera errepikatu zuen *tambú*aren erritmoan, ikasleek agerlekura igo zirenei beren jarlekuetara laguntzen zieten bitartean. Behin amaitutakoan, Teiliren eta Rihannaren taldeek bat egin zuten, *tambú* kantu bat dantzatzeko. Kantuaren erdian, Teilik poema bat errezitatu zuen haren eskolako gatazkaren inguruan. Gero, musika aldatu egin zen, *tambú*tik *tumbara*<sup>4</sup>, eta Rihannak abesti alai bat kantatu zuen, curaçaoarren ezaugarriari gorazarre eginez. Azken kantu horretan guztiak dantzan eta leloa abesten hasi ziren: –*Laga historia atras, mi stima bo mane bo ta. “Laga historia atzean, zaren moduan maite zaitut”*.

---

<sup>4</sup> Tumba afrikar jatorriko musika genero bat da, Aruba eta Curaçaoa.



Eskolako zuzendaria jo eta ma gelditu zen, baita Teiliren eta Rihannaren gurasoak ere. Irakasleak pozarren zeuden. Azkenean, ikusleak zutitu egin ziren taldeari txalo egiteko. Bi neskek elkar besarkatu zuten, eta aldi berean esan zuten: –Lan bikaina, lagun!

AMAIERA